

Nafarroa

Nafarrokako gehigarria / Ostirala, 1992ko uztailak 10 / II. urtea / 32. zenbakia

Bi hormetara



JOSETXO AZKONA

Maldaz gora jarri zaigu, bai!, aurtengo Sanferminetan ongi jardutea. Zinez, hasmentatik adoretu behar izan diogula elkarririk orain gauden bezala egoteko eta, azkenean, badirudi umore onez gabiltzala, uztailak 10, ostiral honetan. Lehenengo egunetan oso eguraldi kaxkarra izan genuen inguru honetan eta, orduan bada, ia ezinezkoa suertatu zitzaigun behar bezala gozatzea. Jakina denez, eguzki printzak behar dira izan festetan, nik eta nire zazpi lagunek osutako koadrilak, kalerik-kale distiratsu eta alaiki ibili ahal izateko. Bestetik, gainerako iruñearren katramilak direla eta ez direla, plante bat egin genuen bespera egunean, ustekabea, gure ohizko ibilbidea aldatu zigutelako. Eta horrelakorik ezin amititu!

Behar berezirik ez dugu. Masaileen kolorete piska bat luzitzea eta gure jantzi koloretsuak urte zainak bezain garbi edukitzea dira gure eskakizun ia guztiak. Gainera, ongi pasatzeko ez dugu, beste iruñearrek ez bezala, tabernaz-taberna joan beharrik. Egunaren argitan eta gauean, lehor izaten dugu eztarria eta, hala ere, beti alai.

Hamaika hilabetez lozorroan izan eta gero, algara bizian esarazi eta jira-biran darabilzkigute harat-honat, beti ere, haur eta jende nagusiez inguratuta.

Iruñearrak, harroputz, buru-bero eta aztapiku samarrak badira baina, jende jatorra da oro-z gain, eta amoltsuki maite gaituzte ume, nagusi eta zaharrek diren artean. Halaz ere, tirabira handiak izaten dituzte maiz, guretzat arras ulertezinak baina, aitortu beharra dago, ahalik eta ondoen portatzen direla gurekin, batik bat, egun zoro hauetan.

Behin New York-era eramen gintuzten, kodrilaren bikote beltza etxean utzita. Bai kontu itsusia izan zela hura! Sevillako Expo ere berrikitan izan gara baina, nola esango nizuke, nahiz mundu pixka bat esagutu ahal izan dugun, galduta bezala ibili ginen. Gurea, Iruñeko karririk dira. Zenbat eta estuago, orduan eta atseginagoa koadri-larentzat.

Esate batera, gaur, 'Haur eguna' ospatzen delarik, orain Kale Nagusian garen bezala, alde berriko ez dakit zeinetan izatea ere tokatu zaigu, eta ez dakizu zuk norainokoa den desberdintza. Tipitu egiten gara auzo zaharraz landa.

A ze poza jasoko genuke guk, mundu osoko hiriek gurea bezalako koadrila izango balute! Oso simpleak izanda ere, ikusi behar zenuke hemen goitik, ze-nolako aurpegi zoriontsuak dituzten hoir behekoek, guri begira dauzetan!

Beno, ahopekako kontutxo hauek behar ditut bukatu. Musika hastear da, eta gainera, gehien estimatzen dudana, mutil koxkoraren eskuak nire gona artean sartzen somatzen hasi bait dut honezkero... Ratatratran-ratatratran!



Festagiroa nonnahi

Sanferminak heltzen diren bakoitzean, Nafarroan benetako iraultza izaten da urtero. Eta ez bakarrik Iruñean edo Lesakan, ez horixe. Herri askotan dagoeneko festak izan badira ere, uztailaren seiak udako ateak zabaltzen ditu askorendako, oporrenak zein juerga-parranda-jirenak. Sanfer-

minak, nahi ta nahi ez, Nafarroa osora hedatzen dira, eta ez dago koadrilarik gauaren bat pasatzera hiriburura hurbilduko ez denik. Patroi beltzaren omenez egindako festa hauek, nafar guztienak ere bait dira, izan ere. Hor-tik aurrera giroa herri guztietara zabalduko da. Hasi da uda.

Barnean

BIOTZA



Urbasako kanping berria zabaldu dute / VII

PAQUIRO



Toreatzaileak ez zuen zortetik izan alternatiba egunean / VIII

Gure aukerak

ZINEMA



'Ander eta Yul' izeneko pelikula Betelu herrian ikusgai izango da bihar, uztailak 11, Nafarroako Gobernuak antolatutako 'Correpueblos' ekitaldiaren barruan. Igandean, hilak 12, 'No me chilles que no te veo' izeneko filma botako dute Mendaza herrian, aipatutako ziklo beraren barruan. Bi pelikulak proiektzioa kanpoan egingo da, herriko plazan, ilunabarrean. Gaua, musika, eta antzerkia batu eta horretaz dastatzeko aukera paregabea, beraz, Nafarroako Gobernuak uda honetarako prestatu duen egitarau bitxi eta zabal honetan.

MUSIKA



'Ortzi' Sakanako folk musikaren taldea gaur, uztailak 10, gabeko partean arituko da Iruñeko barraka politikoetan. San Ferminak direla eta txosnek egunero antolatzen dituzte kontzertu desberdinak, mota askotakoak, eta ekitaldi horren barruan Sakanan sortutako gazte hauen taldeak joko du, Euskararen Egunaren ekitaldien barruan. Bihar, hilak 11, Internazionalista Eguna ospatuko da eta gabea Chileko Terral taldea arituko da bertako eskenatokian.

Oskorri musika taldea datorren ostegunean, hilak 16, arituko da Tuterako Castel Ruiz Kultur etxearen patioan, Santa Ana jaiaren aurretik egiten ari diren ekitaldien barruan. Kontzertu honetara

ERRAN DUTE

«Nere arerio artean, soilik Bugnok kezkatzen nau».

Miguel Indurain
Txirrindularia

«Cerverak esana zigun Gracia pilak kargatuta zertorrela».

Jose Ramon Aranguren
Iruñeko zinegotzia

«San Ferminetako feriarieutsi nahi badiogu, ezin dira horrelako zezenak ekarri».

Juan Ignacio Ganuza
Toreozalea

«Estatubatuarrei telebistainteresatzen zaie, batez ere haietariko bat bertan dagoenean».

Emilio Sanchez
Kazetaria

Lozkizeko magalean

Lanaibarreko herri eta herrিকা guztiak udal entitate bakarra izan dira Erdi Arotik honuntza, eta oraindik ere gaur egun hala dira. 1281an foruak berri egin zituzten, eta 1461an zeharo suntsitu zuen haran osoa Enrique IVren armadak.

Egun lau kontzejuk osatzen dute Lanaibar: Galbarra, Gastiain, Narkue, Ulibarri eta Boloria. Oro har 240 biztanle dago bertan, eta herri garrantzitsunea Galbarra da.

Bilorian ikustekoa da San Andreseko eliza, XVI mendekoa. Erretaula nagusia Lopez de Lareta eskultore arabarrarena da. Antzietaren laguna bera. Halaber, hiru ermita daude herritik gertu. Lehendabizikoa, San Blas eta San Antoniokoa, herritik laurden batera edo dago. Bigarrena, Soledadekoa, herrian bertan; eta hirugarrena, Santa Qiteiriarena, Lozkizeko mendizerran, bi ordutara.

Galbarra, Ulibarri eta Narkuen ere ermita bana daude, eta Gastiainen, San Saturninoren eliza-



rekin batera, Zumadoiako ermita dago, herritik berrehun metro-tara.

Han bertatik abiatuta ere Arnaba mendirainoko (1.256 m.) ibilbidea egin daiteke, erreza, eta

ordubate inguruko paseotxoan burutu daitekeena. Horretarako herritik bertatik atera behar da, eta hasieran pistetatik, ondoren mendian sartzen da bidea, nahiko nabarmena.

sartzeko 700 pezetan salduko dira sarrerak.

ERAKUSKETAK



'Nobelen Sanferminak' izeneko erakusketa ikusgai dago Zapateria kaleko arte aretoan. Hiritar Eragintza arloarenean, Jose Luis Nobel argazkilaria

20 urteko lana dago paratuta, datorren uztailaren 15a arte.

Willy Ronis artistaren lanen erakusketa ikusgai dago Iruñean datorren uztailaren 19a arte. 'Mis años Ochenta' izeneko erakusketa Aurrezki Kutxa Municipalak duen aretoan dago, Garzia Castañon kalean.

Jabier Gil Puii herriko pintorearen lanak ikusgai daude aste-buru honetan, hilak 11 eta 12, Tafallako Kultur etxean, bertako kultur patronatoak antolatutako ekitaldiei esker. Artista honek egindako 33 obra ikus daitezke erakusketa honetan, artistak egiten duen bigarrena, hain zuzen ere. lehendabizikoa urtarrila al-

ASTEKO PERTSONAIAK

Joaquin Pascal



Iruñeko zinegotzia

Jose Luis Etxegarai



Lesakako alkatea

Maribel Beriain



Iruñeko zinegotzia

Iruñeko zinegotzi sozialista Lizan zen aurtengo txupinazoa botatzeko ohorea izan zuena, iaz Jaimeri egokitu ondoren. Pascallek ilusio handia egiten ziola esan zuen, eta hala izan omen zen, botatzerakoan urdurik eta larri agertu bait zen. Hori bai, eztanda egin ondoren, denak lasaitu ziren udaletxean eta beste balkoian zenbait istilu izan bazen ere, denak ados azaldu ziren iazkoa baina lasaigoa izan zela azaltzerakoan. Ez zen hain pozik azaldu Asun Apeztegia, makina bat urtez udalan egonda ere, oraindik ez bait du bota zorionezko itxarfueroa.

Haserre bizian azaldu zen San Fermin egunean alkatea, dantzariak musika berriaren eztabaidaren inguruan hartutako erabakiagatik. Izan ere, udalbatzak agindutakoaren arabera, 'Napoleonak' zein 'Oninen erzteetan' musikekin dantzatu beharra zegoen, igotzeko eta jeisteko, baina dantzariak muzin egin zioten erabakiari. Etxegarai oso haserre zegoela adierazi zuen desfilea amaitzerakoan, eta dantzarien aldetik boikota ere izan zela azaldu zuen, hauek soilik HBko zinegotzietan egin bait zieten ohorea, bandaren azpian pastzerkoan.

Emakume honena gehiegizkoa da. Javier Chorraut lehengo alkatearekin txarki moldatzen zela eta, izugarritzko hankasartze eta gaizkikusia izan ziren UPN barruan. Alkatea bota zuten, eta bazirudien gauzak hobeki joango zirela, baina, bai zera! Maribel Beriain ez da ixilik gelditzen den horietakoa. Kritikak bota zituen alkatearen kontra Riau-Riauren gaian izandako jarrera zela eta, eta lehengo egunean, alkatearen beraren aginduari muzin eginez, entzierro baino lehen zolua nola zegoen ikusteko ibilbidea egin zuen. Huskeriak izan daitezke, baina esanguratsuak.

dera paratu zuen bere herrian bertan.

Jesus Alava argazkilaria erakusketa ikusgai egonen da datorren astelehenean, hilak 13, uztailaren 23a arte, Tuterako Castel Ruiz Kultur Etxean. Erakusketa honetan artistak herriko jaietan egindako argazkiak ikusteko aukera egonen da. Halaber, jaiak iragartzen duten kartelen erakusketa ere ikusi ahal izango da toki berean.

ANTZERKIA

Ilargi eta Trokolo antzerki taldeak herriz herri ibiliko dira ekainaren 27tik iraila bitarte Nafarroan. Luzaiden hasi eta Mañerun amaituko den herri bira 'A zer irriak' eta 'Zalapartaka' lanak antzertuko dira, euskaraz zein gazteleraz. Antzerki lanen atzetik, ilunabarrean, zine emanaldiak eskainiko dira kalean, hoge metro karratuko pantaila batean, eta mota guztietako filmak ikusteko aukera egonen da.

'Flik-Flak' antzerki taldea arituko da datorren ostegunean, hilak 16, Tuterako Castel Ruiz Kultur Etxean, jaiaren aurretik prestatu den ekitaldien barruan. Haurrek ere, horrela, aukera ona izanen dute festez gozatzeko, askotan ahaztu samarturik egoten bit dira egitarau ofizialetan. Fiesta de la espuma (Aparren festa) izeneko antzezlan eskainiko du talde honek.

ADI !

EUSKALERRIA IRRATIA FM 91.0

Larunbatetan 9etatik 10etara... **Xinguli Mangulu** haurrendako saioa.

XORROXIN IRRATIA FM 107.5

Egunero 20.00etatik 22.00etara... **Karakola segi hola** gazteendako saioa.

HERRI IRRATIA OM 1134-FM 87.9

Asteazkenan FMn 21.00etatik 22.00etara... **Gautxori** irratia saioa. Narrazioak.

RNE RADIO 1 OM 835

Asteazkenan zehar 20.30etatik 22.30etara... **Zuri eta Beltz** Elkarrizketak, erreportaiak, musika.

ARALAR IRRATIA FM 106.2

Asteazkenan zehar 13.30etatik 14.00etara... Bertako bizilagun eta pertsonai ospetsuei elkarrizketak.

HaTOR FeSTaRa

Lehendabizikoak Saratsa eta Etxaurin izan baziren ere, ekainaren hasieran, uztailean, oporrekin eta uda minarekin, ugaltzen dira nonahi

Nafarroan festak. Sanferminek eramaten dute ospe eta fama guztia, baina herri txikienetan ere badituzte beren egunak, egitarau bereziekin. Saiatuko gara hurbiltzen

herri guzti hauetara, Nafarroa osoan, eta heldu den astean Aguilar de Codes, Iturmendi, Ezkaroze eta Uztarrozeko festak aurkeztuko dizkizuegu. Aprobetxatu!

Uztarrozen, uholdeak ahaztera

A.B. / IRUNEA

Uztarrozen festak izango dira aurten ere, duela hiru asteko uholde izugarriek eragindako kalteak eta egonezak gorabehera. Izan ere, eta Conrado Orduna bertako alkateak adierazi duenez, «kaltea eginda, hoberena da ahalik eta laisterren ahaztea». Goioak ere horretarako badaudela uste du alkateak, eta egitarau zabal prestatu du udaletxeak Karmengo Ama Birjinaren omenezko egun hauetarako.

Horrela, asteazkenean hasiko dira festak, eguerdian botako den txupinazoarekin. Egun guztietan zehar berbenak eta kalejirak izango dira, Zeus taldearen eskutik, eta baita argi soinuak ere, goizean goiz. Ostegunean jubituen eguna izango da.

Ostiralean haurren eguna ospatuko da Uztarrozen, eta haurrendako jokuak, txokolatada, jolas-maratoia eta mozorroekin dantzaldia izango da. Larunbatean gaztediaren eguna izango da, eta herri bazkaria egingo dute Urona iturriaren ondoan, baina egunik hoberena igandea izango da, herri osoa etxez-etxe arituko bait da janari eta diru eske, ondoren merienda egiteko. Dantaldiaren ondotik 'Pobre de Mi' abestuko dute uztarroztarrek.



Aguilar de Codes.

Aguilar de Codesen egitaraurik gabeko festak

A.B. / IRUNEA

Aguilar de Codesen ez da egitaraurik aurten, ez jaiak ez direlako, ez horixe, prestatzeko astia izan ez dutelako baizik. Carlos Perez festen arduradunak azaldu duenez, eta zenbait atorra egiteko astirik baino ez dute izan.

Hala ere, horrek ez du esan nahi festa giroa izango ez denik hurrengo egunetan, hamazazpitik hemeretzi bitarte. «Zerbait egiten bada, une berean erabaki eta egin egingen dugu —dio Perezek—. Urteik urtera behera egin dute festek, jende asko kanpoan ari bait da lanean, eta zurkapote eta betizuak ekartzeko ohiturak galdu egin dira.

Auzoen arteko bazkariak Ezkarozen

A.B. / IRUNEA

Zaraitzu herrian, egun hauetan festak ospatuko dituzten guztien antzera, hurrengo asteazkenean, hilak 15, hasi eta igandera bitarte iraungo dute Karmengo Ama Birjinaren omenezko festek. Aipatzekoa da, egitararen barruan, auzo guztien artean egingo den bazkaria, ostiralean, hain zuzen ere.

Horretarako egun hori Auzoen Eguna izendatu dute, eta Carmen, Madalenà, San Jose, Tejeria, Enparantza eta Ruiz de Alda auzoetako bizilagunak elkartuko dira bazkaltzera herri osoan sakabanaturik. Ondoren, arratsaldean, mozorroen jaialdia izango da herriko enparantzaren, eta sariak emango zaizkio grazia handien erakutsiko duen bikoteari. Gabez, mozorroen dantzaldia berriro ere.

Baina festak, asteazkeneko eguerdiko hamabietan hasiko dira, txupinazoarekin. Ondoren, arratsaldeko hiruretan bazkaria izango da koadrilen artean, ma-



Ezkaroze.

PATXI ULAIAR

kaldian, eta akordeolarien laguntzarekin.

Ostegunean meza nagusia izango da herriko elizan, eta ondoren, hamaiketako eskeiniko du Udalak elizaren aterpean herri guztiari. Arratsaldeko sei t'erdietan Nobleza baturra talde aragoarrak kontzertua eskeiniko du herriko plazan.

Larunbatean haurrendako jokuak izango dira, Lindux Amapolux taldearen eskutik, eta ondoren, txokolatada. Arratsaldeko

zortzietan haur mozorroen lehiaketa, eta gabez, egunero bezala, eta talde beraren eskutik, dantzaldia.

Igandean futbito partidu 'handia' izango da Oslo taldea eta Zaraitzuko selekzioaren artean, eguerdiko ordu bata t'erdietan bertako frontoian, eta ondoren pilota partiduak ikusi ahal izango dira leku berean, jubenil zein afizionatu mailan.

Festak berbena eta 'Pobre de Mi-rekin' amaituko dira.



Maiatza paratzen Iturmendin.

Iturmendin, Santa Marinara

A.B. / IRUNEA

Iturmendik ere asteazkenean emango die hasiera jaiei, arratsaldeko zortzietako itxafuegoarekin. Ondoren, Sakana osoan egiten den gisan, Udalak zilarrezko kikaretan ardoa emango du herri osoarendako. Baina egunik politena eta bereziena, dudarik gabe, larunbata izango da, Santa Marinara egingo duten bisitarekin. Bertan, eguerdian meza nagusia izango da, eta ondoren bazkaria egingo dute iturmen-

diarrek bere inguruan, soinu eta musikaren laguntzarekin.

Arratsalde partean Dantzarlarrera jeitsiko dira, herritik gertu, eta han trikitixa eta benduba izango da hamarrak arte. Ondoren, herrian, musika, argitu arte.

Aipatzekoa da ere, ostegunean, hilak 16, eta patroia egunean, elizako organo berriaren inaugurazioa izango dela. Horretarako Lorenzo Ondarra musikagile famatuaren presentzia izango da Iturmendin.

ETA FESTAK ZER MODUZ ?

Gutxi esan daiteke Sanferminei buruz, dagoeneko esanda ez dagoenik. Bereziki Iruñekoak, baina baita ere Lesakako jaiek izuga-

rizko literatura sortu dute urte guztietan zehar, batez ere komunikabideetan, eta dena ederki ezaguna da, ez bakarrik herrian bertan. Hala eta guztiz ere, 1992ko

sanfermin hauetan orain arte gertatutakoaren balantze txikia egin nahi izan dugu, jaiari tenperatura hartu izan bagenion. Osasuntsu dago, alajaina!



GIROA

'Etxekoak' ospatzen ari dira

AINHOA ARROIABE / IRUNEA

Sanferminak direla eta Iruñeko kaleak kolore eta jendez beteta daude. Aurten, aurreko urteetan baino jende gutxiago bildu da, baina, eta ohitura ez haustearren milaka atzerritar hurbildu dira sanfermin ospetsuak ezagutzeko asmoarekin.

Egunean zehar gauzatu diren ohizko ekitaldiek —Txupinazoa, Riau-Riaua, Prozesioa, Erraldoi eta Kilikiak— ikusle asko bildu dute. Ikusleen artean guraso eta seme-alabak nagusitu dira. Parte Zaharrean txarangak eta fanfarreak kalejira anitz egin dituzte, eta euren jarraitzaileak leku ba-

tek ez dute, orain arte, ohi den arrakasta lortu.

Gaueko martxari dagokionez, jende gutxi eta hainbat musika motaren aukera zabala nagusitu da, eta, beti bezala, lehendabiziko egunen zorabio ostean, giroak dexente finkatu dira. Salda atsegin dutenak, Burgoetako enparantzan bildu dira, Antoniutiko parkean patxangazaleak, eta giro diskotekeroa gustokoa dutenak, Gazteluko enparantza eta San Nikolas kale tartean ibili dira. Tabernetan —nola ez!— sanferminetako musika nagusi.



ENIZIAIRROAK

Orain artekoak, labainkorrak

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Labainkortasuna izan da orain arte aurtengo entzierroen ezagarririk nagusia. Arazo horren aurka borrokatzeko, udala makina berri bat erabiltzen ari da aurten. Zezenek entzierroan zapaltzen dituzten kaleak garbitu eta lehortu egiten ditu honek, edo udaleko ordezkariak behintzat hori diote. Dena delakoa, makina honek ez du bere helburua ondo

betetzen, eta zezenak lurrera erortzen dira Mercaderes kalera ailegatu bezain laster. Behizainak protestaka hasi dira, baina ez dirudi arazoak konponbide erraza duenik. Arazoa larriagotzeko, orain asteburua dator, eta honekin batera parrandazale eta zikinkerik anitz. Egun hauetan zolua inoiz baino irristakorrigo izanen da, eta gainera korrikalari kopurua ere areagotuko da.

RIAU-RIAU

Ofiziala ez, baina azkenean berreskuratu zen ekitaldia

TXARO SATRUSTEGI / IRUNEA

Riau-Riau ofizialik gabeko urtea modura gogoratuko da aurrerantzean 1992. hau.

Zenbait bilera eta negoziazioen ondoren Alfredo Jaime alkateak ez bait zuen akordiorik lortu Riau-Riaua ospatzearen aldeko ziren peña eta gainontzeko taldeekin. Uztailaren 6ko lau t'erdia zirenean, ordea, jende ugari hurbildu zen Udaletxeko plazara, aurreko urteetan baino gutxiago —Riau-Riau ofizialetan adinako jendetzarik ez zen osatu—, baina ha-



lere talde polita osatzeko modukoa. Jendeak ez zituen inondik ere jaiak ekitaldi ospetsu hori gabe pasatzerik nahi, eta zer gerta zitekeen ikustera, badaezpada kalera atera zen hainbat lagun.

Baita asmatu ere, bostak aldera zirenean frac jantziekin apainduriko zenbait gazte azaldu eta Riau-Riau berezi bati hasiera eman bait zioten.

Berez sortutako ekitaldi honetan ez zegoen alkaterik, ez zi-

negotzirik. Ezta La Panplonesa musika banda eta kilikiak eta erraldoiak ere, baina aurrera egin zuen, eta bildu ziren mila pertsona inguru horiek San Lorenzo elizaraino dagoen bidea berrogei minututan egin zuten, bertan Fermin santuaren omenaldian bezperak abesteko nahian. Noski, ez ziren orduan kantatu, baina bai geroago, arratsaldeko zazpietan hain zuzen, Jaime alkatea eta zinegotziek iritsi zirenean.

Orain dela lauorgeri urte inguru sortu zen bezalaxe, aurtengo

Riau-Riaua ere bapatean sortutako ekitaldia izan zen, jendeak zuen nahiak bultzaturik, eta ez bat bakarrik, hiru riauriau alternatiboak egon bait ziren.

Lehendabizikoa, aurrean aipatutakoa, nagusia izan zen jendearen aldetik, baina martxa zabaltzen zuten 'alkate' eta 'zinegotzi' bereziak ez ziren San Lorentzora iritsi, bidean dagoen taberna batean geratu ziren. Beste bi ekitaldietan parte hartu zutenak ere iritsi ziren elizara, zertxobait beranduago baina iritsi.

BARRAKAK

Egunean hogeitalau orduz jai giroa nagusitu da

JUAN KRUIZ LAKASTA / IRUNEA

Aurten estraineko aldiz egitarau kultural zabala antolatu dute barraka herrikoiek. Yanguas y Miranda kaleko aparkalekuan —txosnen aurtengo bestagunean alegia— eszenatoki bat paratu dute, eta bertan goiz, arratsalde eta gauero hainbat ekitaldi antolatuta. Modu honetan, barraken betiko giroa gordetzeaz gain, bestagune zabal berria sortzea lortu dute. Sanferminetako beste ekitaldi gehienetan gertatu den bezalaxe, hona ere espero baino ikusle gutxiago hurbiltzen ari dira. Gau-giroari dagokionean, beti bezala: jende franko, eta ohi ez bezala, musika zuzenean. Orain, Sanferminetako unerik gogorrenei aurre egin beharko dizkiete txosnek, asteburuko parrandazaleen inbasioaren ordua heldu bait da.



Lesakan musikak piztu zuen eztabaida

A.B. / IRUNEA

'Napoleonak' edo 'A orillas del rio Onin' ('Oninen ertzeetan') musiken arteko eztabaidak markatu zituen Lesakako jaien hasiera. San Fermin egunean, herriko dantzariak ez zuten parte hartu nahi izan korporazioarekin batera ohizkoa den elizatik jeitsieran, eta haserrea piztu zuen alkate eta zenbait herritarrengan, aurretik udalbatzak hartutako erabakiari muzin egiteagatik, hain zuzen ere.

Hori da egungo eztabaida Lesakan, izan ere. Ezaguna denez, 'Napoleonak' izeneko musika betidanik erabili izan da dantza-

Dantzariak ez dute onartu musika berria, eta iaz bi musikekin dantzatu bazuten ere, jeisterakoan eta igotzera-koan, aurten korporazioarekin batera ez joatea erabaki zuten.

riek korporazioa laguntzerakoan egiten duten dantzarako. Bandako zuzendariak, ordea, beste musika bat asmatu zuen —'Oninen ertzeetan'—, dantza horretarako «egokiagoa» zelakoan.

Dantzariak, baina, ez dute onartu musika, eta iaz erdibana dantzatu bazuten ere, hau da, bi musikekin, aurten korporazioarekin ez joatea erabaki zuten. Gogoratu behar udalbatzak bi musika jotzeko erabakia hartu zuela, 'Napoleonak' elizara igotzeko, eta 'Oninen ertzeetan' jeisteko. San Fermin eguna amaituta, bereziki gogorak ziren Jose Luis Etxegarai alkatearen adierazpenak, dantzarien aldetik 'boikota' izan zela aipatu bait zuten.

etik bestera dantza eta kantuz ibili dira. Baina ez dira soilik txaranga edo fanfarreen abesti eta doinuak jaia alaitu dutenak, musikari ibiltariak ere animazio lanean lagundu dute. Honela doinu peruarrak, tam-tam afrikarrak, gaita eskoziarrak eta akordeolari frantsesen abestiak entzun dira hasierako egunotan Iruñeko kale eta txoko ezagunetan.

Entzierroetako partehartzaileak ere aurreko urteetan baino urriagoak izan dira eta zenzenke-

Urbasa, Andia eta Entziako mapa argitaratu du Mikel Nazabalek

M. A. / ETXARRI-ARANATZ

Urbasa, Andia eta Entziako mendiak biltzen dituen mapa bakarra argitaratu berri du Mikel Nazabal etxarriar ezagunak. Horretarako, Imanol Goikoetxearen mapa oinarritzat harturik, oinez zeharkatu ditu egileak mapan agertzen diren pista, bide, eta xenda guztiak, eta Andiakoak gehitu egin dizkio.

1:50.000 eskalan eta 100 metroko desnibelari dagozkion bost margotan egindako mapa honetan, Nazabalek galtzear zegoen toponimia berreskuratu nahi izan du horretarako, eta tokiko izenez jabetu asmoz 35 artzainekin aritu da hizketan. «Pazientzia handiz hartu dut lan hau, eta tokian tokiko toponimiaz artzainei galdetu diet. Ondoren, beste iturri eta abeltzainekin kontrastatu ditut datu guztiak», azaldu du Mikel Nazabalek.

MAPA ERABILGARRIA NAHI Toponimia biltzeaz gain, Urbasa, Andia eta

Entzia ezagutzeko mapa erabilgarria osatu nahi izan du egileak, bertan agertzen bait dira, besteak beste, bide, iturri, aska, leze, kobazulo, baseliza eta ondare megalitikoak. Azken hauei dago kienez, Eusko Ikaskuntzak Entzia eta Urbasan sailkatuta dituenak agertzeaz gain, Andian dauden sailkatu gabeko ondareak ere jasotzen ditu, Rafa Karasatorre emandako informazioari esker.

Lezeak kokatzeko, Nazabalek Lizarra eta Etxarri-Aranazko espeleologi taldeek eskainitako laguntza aipatzen du. Hala ere, zenbakiz sailkatuta zeuden lezeei tokiko izena ipini die, «43. lezeaz aritzea baino Zozolongorriko lezeaz aritzea egokiago dela uste bait dut».

Lezeak kokatzeko Lizarra eta Etxarri-Aranazko espeleologi taldeek eman diote laguntza.


ARRISKUA ETA KUTSADURA Xenda eta iturrien artean hautaketa bat egin behar izan duela dio Nazabalek. «Xenda garrantzitsuenak ipini ditut eskalan, mapa argiago izan dadin, eta agertzen diren iturriak, normalean urte osoan zehar ura duten iturriak dira, nahiz eta gero iturri, aska eta baltsak seinaleetan bereiztu ditudan».

Azken hilabete hauetan Urbasa, Andia eta Entzia zeharkatzen ordu ugari pasa ondoren, mapan agertzen ez diren gauzetaz jabetu dela dio etxarriarrak. Bata lezeak duten arriskua da, izan ere, hauetatik asko eta asko igande pasatzera etortzen den

jendearen geldiguneetan bait daude. Hau dela eta, Lezaunen egin duten bezala, lezeak hesitu ditzan dei egiten dio Nafarroako Gobernuari. Bestea, nola ez, kutsadura da. Batetik, igandero hara agertzen den jendeak uzten duena, eta bestetik, «oraindik larria-

goa, militarrek maniobretan ibili ondoren lezeen barrura botatzen dituzten hondakinak».

Mapa hau egiteko, Nazabalek Altsasuko Udala, Sakanako Mankomunitatea, Entziako Partzuergoa eta L.K.A.ren lagunza jaso du.



Urbasako toki izen guztiak biltzen dira mapan.

PATXI ULAIAR



Aurten, Sanferminetan baditugu bi bide aski egoki paisaia hau hobetzeko

MANCOMUNIDAD DE LA COMARCA DE PAMPLONA
IRUÑERRIKO MANKOMUNITATEA

Gazteendako Zokoa

Antzandobi handia

Lanius excubitor

Arantzak biltegi moduan erabiltzen ditu
Oso bakartia




Birigarroren tamainakoa

Altzandobien artean handiena, birigarro baten tamainakoa da ia, baina isatsa orandik luzeagoa dauka. Mokoak, begi ondoan, hegala, eta isatsaren erdialdea beltza dauka, eta burua eta lepoaldea fiabarra. Zintzurra txuria, bularraldea eta kolkoa txurirrosa dauka.

Bere elikadurarako insektu, txoritxo, musker txikiak eta ugaztun txikiak harrapatzen ditu, eta beste antzandobien antzera, soberakinak arantzetan uzten ditu, eskasiaren garaietarako.

Oso bakartia da, eta soilik familiarekin osatzen ditu taldeak. Ehiza barrutia oihuen bidez markatzen ditu, zakar samarrak. Maiatzaren erdirako txitoak gurasoen atzetik ari dira dagoeneko. Oso zabaldua dago Afrika, Europa eta Asian, eta hemengoak ez dira gehiegi mugitzen, ez behintzat migrazio moduan.

Nafarroan sastraketan eta so-roetan aritzen dira, zuhaixka askorekin eta zuhaitz bankan bartzurekin. Ohian zabalenetan ez dira oso ugariak. Halaber, alturaz ez da gehiegi igotzen, eta mila metrotik gora ez da izaten ohi.



Bi txerri eta basurdea

JUANMA AMAS

Morentin deitutako herrixka 'irapero' batean, Aiegi bezain txikia edo txikiago zen herri batean, hiru kale ziren nagusienak. Kale bakoitzean familia bat zen ezaguna, dirudunak zirelako, grazia zutelako, seme asko zutelako eta abar. Adibidez, kale nagusian 'Los Ancines' izenekoak ziren ezagunak eta hori bai, aitonaren ateraldiengatik, 'Marianito el corto-k' baino grazia gehiago bait zuen. Hauena familia handi samarra zen, gurasoak eta zazpi seme: Paco, Andres, Jose, Nicolas, Patxiku, Fausto eta azkenik Carmelo. Familia honek abere asko zituen, beraz aberatsa zen: bi zaldi, asto bat, hamar oilo, ahateak eta bi txerri.

Abere guztietatik bat zen besteengandik gehien nabarmentzen zena: 'Pig' txerria, hain zuten. Txerri honek urdai onak zituen, haragi asko, saiheski onak eta odol asko, odolkia egiteko, noski.

Beste kale batean, enparantzan, ez zen familia bat baizik eta pertsonaia bakar bat, 'El ventero' izenekoak. Honek bakarrik txerriak zituen eta txerri hauek ez ziren oso onak baizik eta argalak eta txarrak. Eta hauetatik bat, besteak bezain argala eta txarra, zuten jakinduriagatik nabarmentzen zen. Benito zen txerria.

Azkenik, eliz ondoko kalean, nola ez, famatuena, apaiza bizi zen: Teo-

doro apaiza. Honek ez zuen animaliarik... beno, bai, bat bakarra zuen: basurde bat. Basurdea txuri-gorria zen, eta Florentzio zuen izena.

Egun zoragarri eta eguzkitsu batean, Benitori izugarritzko ideia bururatu zitzaion: hiru txerritxo hauek, edo hobeto esanda, 'Pig', Florencio eta Benito, txerrietei edo etxetik alde egitea berarekin, eta beren herria egitea: Porkylandia city, hain zuten.

Hiru txerriei izugarritzko ideia iruditzen zitzaion, eta birritan pentsatu gabe, Porkylandia city egitera abiatu ziren. Pig txerria alferrontzi bat zen, baina, hori bai, Julio Iglesias baino aberatsagoa. Orduan Pepitoren txerrieteira joan zen eta hamar txerri aukeratu zituen igeltsero lanean aritu zitezten.

Txerritxo hauen soldata gordina 50.000 gramo pentsutan ziren, baina elizari 5.000 gramo, estatuari 6.000 gramo eta 9.000 gramo aseguratza sozialari, azkenean 30.000 gramo gelditzen zitzaion. Ikusten duzuen ez oso gutxi, baina horrelakoa da bizitza.

Hamar txerritxo hauek hogei egunetan lan eginez, batzuk asko, besteak gutxi baina, horrelakoa da bizitza, ehun pisutako etxea egin zuten. Benito basurdea, berriz, oso langilea zen baina oso diru gutxi zuen, kokainarako behar zuelako. 10 pisutako etxea egin zuten, baina hori bai, Angela Chaning-ena baino politagoa.

Azkenik Florentziok, Vietname-

ko gerran egona zenez, bere etxea kamuflatu egin zuen eta horrelako gauzak. Baina oso oso erresistentea benetan.

Hilabete luzea pasatutakoan hiru txerri hauek elkartu egin ziren eta orduan gauza batetaz ohartu ziren. Etxeak egin ahal izateko baimena falta zitzaion, eta, beldurrez, bakoitza bere etxean ezkatatu zen. Pig, bere etxeko 65. pisuan, Florentzio bere txabolan eta Benito zazpigarren pisuan.

Porky zibil guztiak, lehenengo, Pig txerria harrapatzea joan ziren. Atean jo eta ez zieten irekitzen. Hau ikusita Sergei Bubka deitu zuten, Pig txerria zegoen pisutik sar zedin. Baina alferrik izan zen, eta igo zenerako Pig, Benitoren etxera zihoan.

Orduan, Porky zibil guztiak Benitoren etxeruntz joan ziren. Baina Benitoren etxean inolaz ere ezin zuten sartu, eta Sargento Gutierrez deitu zioten, altura saltoan oso trebea zena.

Leihotik sartzeko agindu zioten baina ez zen uste zuten bezain ona. Azkenik hiru txerrikumeak Florentzioren etxean elkartu ziren. Hirurak lasai zeudela, porky zibil bat, Jeronimo hain zuten, tximiniatik erori zen, helikopteroz zihoan bitartean. Eta zer gertatu zen galdetuko diozue zuten buruari, ezta? Ba Jeronimok Benitoren txerto bat begi erdian sartu ziola. Eta Porky zibil guztiak ihesi joan ziren.

BASAJAUN

Sanferminak hasi direnez gero, hemendik animatu nahi zaituzten ea denon artean lortzen dugun Iruñean ibili behar den bezala ibiltzea.

Festa hauetan gehiegi eskatzea izango al litzateke gutxienez toki berdeak edota zuhaitzen gainean txiza ez egitea? Festetan hain ugariak diren edarien erretilu eta plastikozko elementu guzti horiek edozein tokian ez uztea?

Horrelakorik egingo ez bagenu denok irabaziko genuke. Iruñerriko Mankomunitateak birziklapen kanpaina berria zabaldu du, baina guk, gure kanpaina pertsonala egin dezakegu. Ez dugu ahaztu behar beharrezkoa dugula, izan ere, festak beste erara ibiltzen diren beste gizakumeak errespetatzea.

Sanferminetan hiriaren barruan kotxeak nahiko gutxi erabiltzen dira, egia esan behar, eta hau jakitea benetan pozgarria da. Zer esan nahi dudan honekin? kotxeak ez direla beharrezkoak hirietan mugitzeko, batez ere Iruñean, dagoen garraio publikoko sarearekin.

Egunotan jende asko Iruñean gelditu arren, beste batzuk irtenbide osasuntsuagoak prestatu dituzte oportetarako. Mendira joango dira, senide guztiakin batera. Mendiak oso gustora hartzen bait ditu bere baitan seme-alaba hauek, gizakumeak, arbasoak biosistema honen barneko beste zati bat bait zen.

Hala ere, mendira joaterakoan, txukuna uzteko ahaleginak egiten ditugu? Leitzaranen, ni, Basajaun, oso gustora nago, eta jaiak oso ongi ospa ditzazuela opa diuzet, iruindarrak, baina gure hiriaren barruan dauden txoko polita eta ederrak errespetatu.



KAZKARROAN

Jenero Xumekoak

Adberbioki ibilitako ardiak

Agian bazen behin menturaz artzain bat mendian bizi zena, eta beharen batek edo eraginda, etxola utzi, abian jarri, eta erreka gurutzatu zuen. Eta biharamonean sarobera iristerakoan nonahi artaldeak akabaturik aurkitu zuen, eta bere zakurra, Ezpain Gorri izenekoak, odoletan blai, harriduraz bezain inozoki artzainaren oinetan propio etzan zen, jakin gabe sikira azken pausulekua zela. Cupidarik gabe aurpegi biziti pizti zikin hura hor berean ajustiziatu zuen supituki. Artzainak ez al zuen labana garbitu, munuz beste aldetiko marraka bat aditu zuen, eta kontraesku han goitin, hiru axuri bizirik kausituko zituen, multzo bateko segida finitua, eta beste hiru otsoren gorpuak ere bai, Ezpain Gorriren inozotasunaren oroitgarri erretroaktiboak.

JEREMIAS ERRO

B T Z E J F A M B I L A
A O U Z T O M I U X A U
A N R A B I O R R E R T
A R O T A F A K U I R R
U E A G Z O K O N N A A
R U Z I L I E L D F U B
U L D K T E R I A A N I
B T U Z O Z R I U R E R
A Z K O D A E H A A Z E
S A E T X A L R E K T T
A M N A T Z A B B T L S
B A D I P Z M I I L R E

LETRA
ZOPA

Aurki itzazu letra zopa honetan eremu euskaldunetan sartu dituzten ibarren izenak. Ibar hauen izenak ezker eskuin, eskuin esker, goitik behera, behetik gora eta diagonalean irakurrita agertuko zaizkizu.

Zaharrak berri

Gauean berandu, goizean maingu.

Goizean jaikitze eta lanerako nagi.

Labaien

Jostaketa luzeak azkeneko negarra.

Buru arinei esaten ohi zaie.

Arano

Aitak semeari:

—Aitor, gaur gauean neska txiki bat ekarri digute Parise-tik.

—Eta amak badaki?

Bizi Bizian

Joan den astean zabaldu zen ofizialki Bioitza kanpina, Urbasako erdi erdian. Paraje ederrean, naturazaleendako toki apro-

posenetakoa izango da, bere helburua bera zonaldearen orekarekiko errespetua bait da. Bostehun pertsonendako tokiarekin, instalakuntza

moderno eta atseginek jasoko dituzte orain arte mendizerran —bere kalterako— sakabanatzen ziren kanpinzale guztiak.

Bioitza, Urbasaren bihotzean

MATTIN KAPITANSORO / URBASA

Bioitzan ireki berri den kanpina Urbasa osoa zaindu eta babes-teko Nafarroako Diputazioak duen egitasmoaren zati bat da, duela zenbait urte hartu ziren neurrien hurrengo urratsa, hain zuzen. Egitasmo honen bidez, handik gutxira dagoen Jauregiaren berrekitatzearekin batera, Urbasa landaturismoarendako punturik garrantzitsuenetakoa izango da lurraldean.

Gipuzkoa eta Arabatik oso gertu, Urbasa betidanik izan da euskaldun askoren gogoko astialdilekua. Ederki kokatuta, zonalde zabalak eta paraje eder hauek pilaketa sortu zuten, baina, azken urteotan, eta arriskuan paratu bertako oreka. Bai ingurugiroarendako, oso ahula urteetan zehar gizakumeak eragindako ia hiru dela eta, baita bertan bizi-modua duten artalde askorendako ere.

Hori dela eta, Nafarroako Diputazioak zenbait neurri hartu zuen duela hiru urte, zonalde osorako egitasmo bat egin asmatan, eta lehendabiziko pausua akanpatzeko toki zehatz bat aukeratzea izan zen, gaur egungo Bioitzan hain zuzen.

Hala ere, horrek haserrea piztu zuen urtero hara joan eta edozein tokian akanpatzeko ohitura zutenen artean, aukeratutako tokian

zegoen azpiegitura falta zela eta. Neurriak bete zitezen harriak paratu ziren bideberriaren ertzeetan, kotxeek sartzerik izan ez zezaten, eta gazte taldeak kontratatu ziren, begirale moduan.


Baina kanpina finkoa paratzeko lehendabiziko asmoak duela bi urte azaldu ziren, eta proiektua Manuel Sagastume arkitektoari egokitu zitzaion, 167,5 milioi pezetako aurrekontuarekin. Lanak behin amaituta, joan den astean izan zen inaugurazioa, eta lehiaketara atera ondoren,

Altasuko Bioitza taldeak eskuratu du hamar urtetarako lizentzia.

Kanpinaren eraikin osoa berria da, eta lehengo eraikinen leku berean altxatu da. Oso dotore eta armonikoa, bat dator inguruarekin, Urbasa dauden eraikin eta materialak erreferentziatzen hartu bait dira horretarako. Bertan izango dira supermerka-

tua, taberna, jatetxea, eta joku aretoak, eta oraingo proiektuan sartu ez bada ere, aterpea ere egiteko asmoa badago, talde handiak edota denda eta karabana gustokegi ez dutenendako.

Kanpinak bostehun pertsonendako toki dauka, nahiz eta bere hamabost hektareek 1.500 lagunendako kapazitatea izan. Soilik heren bat aprobetxatzeko erabakia, Floren Vicente Bioitza taldekoak adierazten duenez, lurra eta ingurua bera errespetatzeko hartu da. «Kanpina hiru sailetan banatu dugu, eta urtetik ur-



Eraikinean bertako etxolen antza errespetatu nahi izan da.

MATTIN KAPITANSORO

tera aldatu egingo dugu akanpatzeko toki, lurra gehiegi ez nekatzeko. Urbasako lurra oso mehea da, izan ere, eta zaindu egin beharra dago».

Kanpinaren proiektuan INEF eta psikologo eta biologo bana aritu ziren elkarlanean, eta azken helburua, Vicenteren hitzetan, «Urbasaren ingurua indartu eta bultzatzea da». Horretarako, mendi txirindulak eta zaldien gainean egiteko ikastaroak eskeinitu dira, eta baita parapente, eskalada eta ala deltakoak ere. Halaber, ingurugiro hezkuntzari buruzko ikastaroak antolatuko dira udazkena eta udaberri aldera, baina kanpina urte osoan zehar irekita izateko asmoa dute bertakoek. Neguan, fondoko eski ikastaroak egin ahal izango dira.

mintzoak

Izpirituaren Aroa

● Giacchino da Fiore-k esan zuen XIV mendean: Aitaren Aroari Semearena jarraikiko zitzaion eta honi Izpiritu Sainduarena. Perestroikak bete zuen profetia, bi tradizio kristauak —liberalismoa eta komunismoa— bateraziz. Judaismoa —Aita— lehenik ghetto eta orain gethogile bihurtuta; kristautasuna —Semea—, merkatuak irentsita, Islam ez beste izaten ahal da egun herri zapalduen opioa. Izpirituaren Aroa ailegatu da.


Gerra hotza bukatu berria genuela, gerra beroa hasi genuen Iraq-en. Bi blokeak adiskidetu egin dira eta bloke bakar bilakatu. Susmoak jo nau: ez ote ziren bloke bakar bat hasi-hasieratik? Izan ere, berrogei urte honetan, Soviet Batasuna eta Jugoslavia desegin arte, ez da inportantziatzeko gatazkarik gauzatu ustezko blokeen artean. Europaz ari naiz, noski. Asian, Afrikan eta Latinamerikan izan dira guduak.

Bi kapitalismoen —alegia, enpresa kapitalismoaren eta estatu kapitalismoaren— arteko gatazka azalekoa izan da

beti. Ideien arteko guduaren bukaerak hau erakutsi ditu: ideiak izan ahal izatea bera luxu hutsa dela, benetako gerra, gerra bakarra, gosea zer den ez dakigunon eta ase zer den ez dakitenen artekoa bait da. Ideologia, Engels-ek esan du, urdaila bete izatea baizik ez da sortzen ahal. Goseak ez du kolorerik. 'Ismorik' ere ez.

Liberalismoak eta komunismoak Lehen Munduan bat eginik, Hirugarren Munduaren kontrako gerrari ekin diogu. Hirugarren Mundua da proletalgo berria klaseen arteko burruka honetan eta arabiar herria haren aitzindaria, gure zibilizazio materialista —suizida— sunsituko duena. Iraultza esperantza itota, gerra saildua dute orain abeta etsituek. Denbora da kontua, baina erori egingen da Inperioa.

Giacchino da Fiore-ren ustez, zorientasun garaia izanen zen Izpirituaren Aroa. Inor ez omen da profeta bere herrian, prometatutako paradisuak, baina, Ifernu bilaka dadin beldur naiz: Berlingo murraren hondarrez ari gara eraikitzen.



Eraikita-koan supermerkatua, jatetokia, taberna eta astialdiarako txokoak badaude, baina hasieran aurrerikusatuz gero aterpea azkenean ez da egin. Hala ere, luze gabe erantsiko zaiolakoan daude kanpinetakoak. KAPITANSORO

Paquiro

Toreatzailea

Arosadiako toreatzaileak asteartean hartu zuen alternatiba Iruñean, Niño de la Capearen eskutik. Nafarroan alternatiba hartzen duen lehendabiziko toreatzaile nafarra, alegia. Ikusmina handia sortu zuen zezenketa, eta plazan ez zegoen sarrerarik

hasi baino dezente lehenago. Hala ere, zezenek ez zuten batere jokurik eman, eta toreatzaileak ere txarki samar aritu ziren. Paquiro, gogo askorik eta ez gehiago. Gaur izango du beste aukera, baina hau da bere lehendabiziko arratsaldearen kronika.

Alternatiba baten kronika

PATXI ULAIAR / IRUNEA

Bere bizitzako egunik garrantzitsuena zen. Hala esan zuen berak. Alternatiba hartu behar zuen egunean, Francisco Javier Martinez 'Paquiro', lasai aritu zen, kapelara joateko ordua iritsi zitzaion arte. Orduan antzeman zitzaizkion aurpegian nerbioak, bere ondoan zeuden lagunak oihuek apaltzen ez zituztenak.

Plaza bete-beteta zegoen, sarrerarik gabe, eta kanpoaldean ohizko ilada luzeak osatzen ziren bitartean —batzuk hurrengo eguneko bigarren eskuko salmenten zain, besteak sarrera galduren baten esperoan—, Paquiro, Arrosadiako toreatzailea, plazara atera zen, txaloen artean.

Zuri eta urrezko jantzia, traza ederra, eta aurpegi serioa. Peñek animozko oihuak egiten zituzten bitartean, lehendabiziko zezena toreatzeko ordua gero eta gertuago zuen hogeituro mutikoak. Ahaztuta zuen ordurako Castejonon aurreko egunetako zezen fardelak, bere apoderatuen azken aholkuak, baina gogoan zuen Niño de la Capeak belarrien ondotik —benetako aholkuak eman behar diren gisan— esandakoa, alternatiba hartzerako momentuan.

Bi zezen zituen aurrean gazteak. 'Codorniz' eta 'Encantado'. Lehendabizikoak behar den bezala egin zuen entzierroa, hau da, gehiegi nabarmendu gabe, baina bigarrenak susto eta ustekabe franko emanak zituen goizean goiz altxatuta eta zapatila jantzita Estafetara azaldu zirenei. Biak zezen fardelak, 550 eta 605 kilokoak, hurrenez hurren. Baina beldurrik ez horregatik, ohituta zegoen eta. Hala ere, fardelabada, eta gainera gatzik gabekoa,



Paquiro, pasa den asteartean, Iruñeko plazan.

PEDRO HERNANDEZ

deus gutxi egin daiteke plaza batean, ezta Arrosadiakoak dituen gogo guztiak jota ere.

Txuri eta urrez jantzia, traza ederra, eta aurpegi serioa. Peñek animozko oihuak errepikatzen zituzten bitartean, toreatzeko ordua gero eta gertuago zuen hogeituro mutikoak.

Peñetako ordezkariak santuaren irudia oparitu zioten lanean hasi aurretik eta hori eskertu zuen

biziki toreroak, eguzki aldeko alde gehiena animoak emateko prest zegoela adierazten bait zuen.

Ordua heldua zen, eta lehendabiziko zezenak ateratzerakoan erakutsi zituen keinuek ez zuten deus onik igartzen. Berandu, lasai eta mantxo. Hori da, hori, irteera! Gainera ez omen zuen inolako interesik toreatzailearengana joateko edo aukeraren bat emateko, eta Paquirok gogoz ekin bazion ere, laister ikusi zen faena benetan zaila izango zela. Zenbait pase eta kitto, eta ezpata sartzeko orduan, txarrena: laugarrenean, aidanez, baina kalitaterik gabe.

TXISTUAK ERE JASO ZITUEN

Baina seigarrena oraindik txarragoa izan zen. Goizean

erakutsitako kemenak agortua zuen, nonbait, eta toreatzeko izugarritzko zailtasunak erakusten

Bi zezenak, fardelak, eta lehendabizikoa berandu, lasai eta mantxo atera ziren. Gainera ez omen zuen inolako asmorik toreroarengana joateko eta laister ikusi zen faena zaila izango zela.

zitzen bitartean, toreroarengana joaten zen maizegi, itxurra txarrean.

Zenbait txistu ere izan ziren toreatzaile gaztearendako, ez oso merezitakoak, kontutan hartuta animaliek ez zutela bestetarako betarik ematen, eta amaiera kexu ere zegoen bera: «Uste dut hotz samar aritu direla nerekin, kontutan hartuz nere lehendabiziko zezenketa zela eta zezenak ere oso txarrak zirela».

Zezenketa amaitzerakoan, ezpatan sartzekoan izandako akatsei leporatu zieten adituek faena hobea ez egitearena, baina, egia esanda, toreatzaile nafarrak ere gogo handiak baino askoz gehiago ez zuten erakutsi.

Gaur bertan izango du bigarren aukera, Guardiola ganadutegiko zezenekin eta Roberto Dominguez eta Jorge Gutierrezekin batera. Ea zezenek laguntzen dioten...

NOSKI JATOR

ZVLDI EROA

